

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko irailaren 28tik urriaren 2rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/09/28

- **GARRAIOEN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. – Aireko nabigazioa.** – Ebazpena, 2020ko irailaren 10ekoa, Aireko Seguratasunaren Estatuko Agentziarena, zeinaren bidez betetzeko neurri onargarriak eta gidarako materiala hartzen diren, urrutiko kontrolez pilotatzen diren aireontziekin egiten diren operazioetarako onetsiak, abenduaren 15eko 1036/2017 EDren azken xedapenetako laugarrenean ezarritakoaren arabera. **2020-11342 xedapena - 28 or.**

2020/09/29

- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.**
 - **Administrazio prozedurak. Kudeaketa informatizatua.**
 - ISM/903/2020 Agindua, irailaren 24koa, Gizarte Segurantzaren Administrazio-esparruan jakinarazpen eta komunikazio elektronikoak arautzen dituen. **2020-11359 xedapena - 7 or.**
 - Ebazpena, 2020ko irailaren 25ekoa, Idazkariordetzarena, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren zigilu elektronikoa sortzen duena. **2020-11360 xedapena - 3 or.**
 - **Itsas eta arrantza sektorea.** - Ebazpena, 2020ko irailaren 25ekoa, Itsasoko Institutu Sozialarena, COVID-19a dela-eta itsas eta arrantza sektoreko nahitaezko ziurtagirien balioari egindako luzapenei buruzkoa. **2020-11361 xedapena - 2 or.**
 - **Gizarte Segurantza.** – Ebazpena, 2020ko irailaren 25ekoa, Gizarte Segurantzaren eta Pentsioen Estatuko Idazkaritzarena, zeinaren bidez luzatu egiten diren, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz, Gizarte Segurantzaren Estatuko Idazkaritzaren 2019ko martxoaren 28ko Ebazpenean ezarritako Gizarte Segurantzaren prebentzio jarduerak.

Ebazpen horren bitartez, Gizarte Segurantzaren prebentzio-jardueren plan orokorra ezarri zen, Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duten mutualitateentzat, haien 2019ko jardueren planifikazioari dagokionez. **2020-11362 xedapena - 4 or.**

2020/09/30

• ESTATUKO BURUZAGITZA.

- **Premiazko neurriak.** - 29/2020 Errege Lege-dekretua, irailaren 29koa, Administrazio Publikoetako telelanaren alorreko eta Osasun Sistema Nazionaleko giza baliabideen alorreko premiazko neurriei buruzkoa, COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko. **2020-11415 xedapena - 10 or.**
- **Neurri sozialak.** - 30/2020 Errege Lege-dekretua, irailaren 29koa, enplegua babesteko neurri sozialei buruzkoa. **2020-11416 xedapena - 43 or.**
- **Premiazko neurriak.** - 31/2020 Errege Lege-dekretua, irailaren 29koa, premiazko neurriak hartzen dituen hezkuntza ez-unibertsitarioaren esparruan. **2020-11417 xedapena - 13 or.**
- **Mugak.** - INT/913/2020 Agindua, irailaren 29koa, uztailaren 17ko INT/657/2020 Agindua luzatzen duena. Agindu horren bidez, hirugarren herrialdeetatik Europar Batasunera eta Schengen herrialde elkartuetara ezinbestekoak ez diren bidaien aldi baterako murrizketa aplikatzeko irizpideak aldatzen dira, ordena publikoko eta osasun publikoko arrazoiengatik, COVID-19ak eragindako osasun krisia dela eta. **2020-11421 xedapena - 2 or.**
- **Osasun materiala.** - Ebazpena, 2020ko irailaren 28koa, Industriaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Idazkaritza Nagusiarena, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren testuinguruan, norbere babeserako ekipamenduei buruzkoa. **2020-11423 xedapena - 3 or.**

2020/10/01

- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. – Antolamendua.** - ETD/920/2020 Agindua, irailaren 28koa, Eraldaketa Digitalerako Kontsultarako Kontseilua sortzen eta arautzen duena. **2020-11489 xedapena - 7 or.**

- **MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA. – Sektorre elektrikoa.** – Ebazpena, 2020ko irailaren 24koa, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarena, zeinaren bidez onesten den 4.0 Eragiketa-prozedura (Nazioarteko interkonexioen kudeaketa) Europako araudira egokitzea. **2020-11490 xedapena - 11 or.**
- **OSASUN MINISTERIOA. – Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Batzordea.** – Ebazpena, 2020ko irailaren 30ekoa, Osasunaren Estatu Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen den Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde arteko Batzordearen Akordioa, SARS-Cov-2ak eragindako infekzioen kontrolatu gabeko transmisio egoerei aurre egiteko Osasun Publikoko Jarduketa Koordinatuei buruzko Adierazpenari buruzkoa (2020ko irailaren 30ekoa). **2020-11590 xedapena - 9 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/09/28

- **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA.** - AGINDUA, 2020ko irailaren 9koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, euskarazko komunikagaitasun-mailen ebaluazioa eta egiaztatze gintza arautzen dituen, eta euskara-ikasle helduentzako dirulaguntzen deialdietarako irizpideak finkatzen dituen. **3876 xedapena - 31 or.**
- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.** - EBAZPENA, 2020ko irailaren 16koa, Gipuzkoako Batzar Nagusia, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 7/2020 foru dekretu-araua, abuztuaren 13koa, EUFAko emakumezkoen txapeldunen 2020ko ligaren amaierako fasearen araubide fiskala erregulatzen duena. **3877 xedapena - 1 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

- **FORU AGINDUAK (GIZARTE POLITIKEN SAILA)** 137/2020 Foru Agindua, irailaren 23koa, zeinak arautzen baititu Arabako Lurralde Historikoko adineko pertsonentzako eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza zentroetako bisitak eta irteerak Covid-19ak eragindako osasun krisialdiak iraun bitartean. **2766 xedapena - 5 or.**

2020/10/30

- **ZERGA PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUAK.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2020 Zerga premiazko araugintzako dekretua, irailaren 22koa. Enpresa estrategikoen kaudimenari laguntzeko Funtsetik eratorritako eragiketei eta egintzei aplikagarri zaizkien zerga salbuespenak onestea. **2731 xedapena - 2 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/10/02

• **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

- 380/2020 Foru Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez onesten baita kooperatiben sustapen eta heziketa funtsaren erabilerari aplikagarri zaion interpretazioa, COVID-19aren ondorioak arintzeko. **4912 xedapena – 2 or.**
- 381/2020 Foru Agindua, irailaren 29koa zeinaren bidez aldatzen baita urtarilaren 22ko 5/2020 Foru Agindua, alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zergaren marka fiskalak eskatzeko 517 eredua eta hura aurkezteko modua onartzen dituen. **4913 xedapena – 3 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO